



ZIZURKILGO UDALA

*"ZIZURKILGO LIBURUTEGI AMANKOMUNA
GAUZATZEKO PROIEKTUAN JASOTAKO LANAK EGITEKO
AURKEZTU DIREN PROPOSAMENEN GAINEKO TXOSTENA*

PROPOSAMEN TEKNIKOEN EBALUAZIOA (2. GUTUNAZALA)

AURREKARIAK.

Zizurkilgo Udalak 2015eko Ekainaren 29an eginiko udalbatzan, besteak beste, "ZIZURKILGO LIBURUTEGI AMANKOMUNA GAUZATZEKO PROIEKTUKO" LANAK PROZEDURA IREKI ETA PREMIAZKOAREN BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIAK AGIRIA onartzea erabaki zuen.

Proposamenak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko epean, honako hauek jaso ziren:

- Urbycolan, S.L.
- ABEE (aldi baterako enpresa-elkartea) Construcciones Fco. Aierbe, S.L. - TARTE

2015eko uztailaren 20an Construcciones Fco. Aierbe, S.L. eta TARTE, S.L. enpresek osatutako aldi baterako enpresa-elkartek prozesuan parte hartzen jarraitzeari uko egiten ziola azaltzen zuen agiria aurkeztu zuen.

2015eko uztailaren 20an kontratazio mahaiak egindako bileran lehenengo kartazala ireki eta horren edukia aztertuta zen. Enpresak eskatutako baldintzak bete zituen.

TXOSTENA

Jarraian, aurkeztutako enpresaren proposamen teknikoa baloratuko da. Pleguan jasotakoaren arabera proposamen teknikoko puntuak honela banatuko dira:

PROPOSAMEN TEKNIKOA : 33 puntu

MEMORIA eta GIZA BALIABIDEAK: 19 puntu arte, honela banatuak:

- Proiektuaren eta obrako inguruaren ezagutza, afekzioak hautematea. Obrak inguruko funtzionamendu arruntan izan ditzakeen afekzioak nahiz aldi berean inguru horretan gauzatzen ari diren obrek obra honetan izan dezaketen eragina gutxitzeko proposamenak egitea: 7 puntu arte.
- Obraren ezarpena: 3 puntu arte
- Afekzioei dagokionez bizilagunekin harremanak errazteko kontratistak eman ditzakeen informazio modu osagarriak: 2 puntu arte.
- Obrako buru eta enkargatu izendatutako pertsonalaren Curriculum-a, lan esperientzia eta obran izango duten dedikazioa: 7 puntu arte.

Atal honetan (Memoria eta Giza Baliabideak), gutxieneko 10 puntuko puntuazioa gainditzen ez duten eskaintzak lizitazioetik kanpo geldituko dira.

EPEA: 14 puntu arte

- 3,5 puntu emango dira plegu honetan obrarako aurreikusitako epea (4 hilabete) murrizten den aste bakoitzeko.



ZIZURKILGO UDALA

Proposamen teknikoan gutxieneko 24 puntuko puntuazioa gainditzen ez duten eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

2. gutunazalean jasotako agiriak aztertuta ondoren zehazten dira enpresak atal bakoitzari dagokionean lortutako puntuak.

	URBYCOLAN
MEMORIA	
Proiektuaren afekzioak	7,00
Obraren ezarpena	3,00
Infomazio modu osagarria	2,00
GIZA BALIABIDEAK	
Obrako buru eta enkargatua	7,00
EPEA	
Epea	14,00
GUZTIRA	33,00

Ondoriozta daiteke URBYCOLAN, S.L. enpresak bete beharreko gutxieneko puntuaketa baldintzak erraz betetzen dituela eta beraz prozesuan aurrera egin dezakeela.

Eta dagozkion ondorioak izan ditzan luzatzen dugu agiri hau.

Zizurkilen 2015eko uztailaren 21ean.

Ainara Sagarna Aranburu
Udaleko arkitektoa

Irati Galarza Arregi
Udaleko arkitekto teknikoa